

KLIMA ALDAKETAREKIKO KONPROMISOA

Ingurumen Zuzendaritza



ZERGATIK?



Klima aldaketa etorkizuneko erronka garrantzitsuenetako bat da eta, gizarte gisa, denok egin behar diogu aurre. Gipuzkoa lurralde kaltebera da, itsasoarekiko duen esposizio handiagatik eta kostaldearen kalteberatasunagatik; gure hiriak ibaien inguruetan daudelako; eta natura eta itsas ekosistemei eragiten dieten eta, ondorioz, gure lurraldeko sektore adierazgarriei (nekazaritza, arrantza, etab.) eragin diezaieketen tenperatura edo gazitasun patroiak aldatu direlako, besteak beste.

ZEIN?

Herritar guztiak, elkarteak eta udalak.



ZERTARAKO?



Herritar guztiekin batera lan egitea, klima aldaketari aurre egiteko ekintza eraginkor batean. Gipuzkoa osoa, herritar guztiak, elkarteak eta udalak bultzatzea, gure ohiturak aldatzeko eta gure udalerriak aurrera egin dezaten helburu hori lotzeko bidean.

NOLA?

Gipuzkoako hainbat udalerritako herritarrak deitu eta aukeratzea, klimarekiko konpromisoa har dezaten 7 erronkaren bitartez. Erronka horiek herritarrak sensibilizatzeko eta hezteko aukera emango dute, eguneroko ekintzetan denok jokaera hobea izan dezagun eta, horrela, klima aldaketa geldiarazten lagundu dezagun.




NON?

Gipuzkoa osoan.

NOIZ?

2020 eta 2021eko ekitaldia.



200.000€